

OSPITALEKO FARMAZIAREN FUNTZIONAMENDU-ARAUAK

Sendagaiak aldez aurreko hitzorduarekin ematen dira: egiaztatu zita bat esleitzen dizutela ospitaleko Farmazian jasotzeko tratamendu berri bat agintzen dizutenean, tratamendu-orria emateaz gain.

Txagorritxu AUOko Ospitaleko Farmazia Zerbitzua hemen dago: 4. solairua – D korridorea.

ARRETA ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera: 08:30etik 14:30era.

Asteartean: 16:00etatik 18:30era.

- Ordu eta egun horretan joan behar duzu Farmaziara. Data horretan joaterik ez baduzu edo hitzordua aldatu nahi izatekotan, **945007079** telefonora deitu behar duzu goizez, astelehenetik ostiralera (08:00etatik 15:00etara).
- Hitzorduaren hurrenkeraren arabera erantzungo da (ez iristearen arabera). Hitzordurik gabe joanez gero, kontuan izan lehenik eta behin hitzordua eman zaien pertsonak artatuko direla.
- Hozkailuan kontserbatu beharreko medikazioa izanez gero, tratamenduaren lehen egunean poltsa termiko bat eta bloke kontserbatzaile bat emango zaizkizu. Poltsa eta izotza zuretzat dira eta zurekin eraman beharko dituzu farmaziara botika gehiago jasotzera zoazenean.
- Tratamendu Aktiboaren Orriarekin (HTA) joan behar zara Farmaziara, lana arintzen baitigu; gainera, arazo informatikoren bat balego (adibidez, sare-erorketa bat) orririk gabe ezin izango genizuke medikaziorik eman.
- Arau orokor gisa, bi hilabeterako medikazioa emango dizugu, espezialistarekin aurretik zita ez baduzu, behintzat; kasu horretan, medikazioa emango zaizu ordura arte.